



xa sencillamente  
transformar la realidad




# Ekologia gure mahaian jarten ete da?

**Abeltzaintza industrialia, elikadura jasangarria eta eraldaketa ekologikoa**

Elikadura ekologikoa oinarrizko gauzei lotuta dago: zer jaten dogun, zeinek eta zelan ekoizten dauan, ze onorio dauan gure osasunarentzat eta planetarako. Beraz, gai nabarmena eta esanguratsua da, baina aldizka baino ez da horri buruz hitz egiten eta, egiten danean, polemikaz, diskurtso interesatuez eta azalke-ria ugariz inguratuta izaten da. Horren adierazle argi, espainiar eretxi publikoan izan diran abeltzaintza industrialari eta haragiaren kontsumoa murrizteko helburuari buruzko azken eztabaidak.

## Elikadura zer dala-eta da garrantzitsua ekologiarentzat

Hala ere, bada edozein eztabaidaren oinarrian agertu beharko leuken zerbait: planeta larri –eta gero eta atzeraezintasun handiagoz- zauritzen duten ekoizpen-eta kontsumo-ereduak eraldatzeko eta ingurumenarentzat hain kaltegarriak ez diren eta bizia gehiago errespetatzen duten beste batzuk ezartzeko premia. Ezinbesteko eraldaketa hauei dagokienez, elikadura-ereduarena funtsezkoa da: zerbaitengaitik, klima-aldaketari aurre egiteko neurririk garrantzitsu eta eraginkorrenen artean, elikagaien ekoizpen eta kontsumoari buruzkoak dagoz, horren menpe dago-eta berotegi-efektuko gasen isurketa orokorren %26. Era berean, elikadura-eredua bioaniztasunaren galeraren, ekosistemen gehiegizko ustiapenaren eta hondatzearen eragile erabakigarri be bada eta arazo larriak dakar osasun publikorako. Eta horrezaz gainera, arlo honetan argi eta garbi ikusi daiteke gaur egungo munduaren desbarditasunaren arrakala




Hausnar-  
ketarako:  
Planetako  
ugaztunen %97a  
gizaki edo  
gizakientzako  
jaki gara

bidegabea: aberastutako aldean dagoan munduko biztanleriak bere kontsumo-ohiturakaz ingurumenean eragin hori dauan bitartean (“zibilizazio-eredu” lez ezarriz), gainerakoek ondorioak jasaten dabez euren elikadura-segurtasuna bermatuta euki barik.

## Abeltzaintza industrialia, arreta-gunean arrazoi onengaitik

Elikadura-ereduaren barruan, abeltzaintza industrialak aparteko arreta merezi dau. Haragia eskala handian ekoizteak egundoko kalteak dakartsoz ingurumenari eta osasunari. Horregaitik, zientzia-eremuak, erakunde ekologistek eta erakundeek euren luzaroan dihardue gurea lako gizartean haragiaren kontsumoa gitxitzea beharrezkotzat jotzen, ingurumenari eta osasun publikoari lotutako arrazoiak emonez: Espainia da urtean, batez beste, biztanle bakoitzeko haragi gehien kontsumitzen dauan BEko herrialdea (batez beste, urtean, pertsonako 100 kg. Inguru). Alde handia dago, esate baterako, Alemanian eta Frantzian kontsumitzen daben kopuruagaz eta bikoiztu egiten da kopurua




Belgikako kontsumoagaz alderatuz. Era berean, arrazoi horrengaitik (eta abereen ongizateari lotutako sentsibilitateagaitik) hainbat lekutan dagozan eta landa-eremua hondatzen daberen abere-ekoizpen industrialerako instalazio handiak –makrogranjak deitutakoak- ezabatu gura izan dira.

## Gure mahaia eraldatuz: elikadura osasungarriago eta jasangarriagorantz

Autortu daigun: ez da erraza gure elikadura-ohiturak aldatzea. Oso barruratuta doguzan ohiturak izaten dira gehienetan, eta aldatzeak ahalegin handia eskatzen deusku. Eragile ekonomikoa be aitatzen da sarri, “elikadura ekologikoa garestiagoa” dala esanez. Zenbait produktu eta saltokitarako egia izan badaiteke be, ezin da orokortu: badira-eta merkeago ataraten diran kontsumo-jardunbide ekologikoak, esate baterako sasoiako produktuak eta lekuko merkatuetan.

Dieta orekatu eta osasungarria gure inguruko elikagaietan oinarritzen da eta horreen artean nagusi dira barazkiak, frutak, zereal integralak, ortuariak, lekaleak eta frutu lehorrak. Abere-jatorriko produktuen kasuan, kontsumo hau proposatzen da: arrautza eta esnekiak gehienez astean bi edo hirutan; haragi freskoa, astean behin edo bi bider, beti abeltzaintza estentsiboko eta, ahal dan neurrian, ekologikoko produktuak. Abeltzaintza industrialaren aurrean (honen kontsumoa dietatik kentzea edo ahalik eta gehien gixitzea proposatzen da), abeltzaintza



agroekologikoak erizpide zuzenak aldarrikatzen ditu pertsona ekoizleakaz eta bere produktuak jasangarriago eta osasungarriago dira.

Guztiz garrantzitsua da elikagaiak gertukoak izatea; horregaitik, dendan galdetu egin behar dogu produktuak nongoak diran eta abeltzaintza estentsibotik datozen. Produktu agroekologikoen kasuan, kontsumo-tal-deetan, kooperatibetan eta denda espezializatueta jaso daikegu barri gehiago.

## Gehiago jakiteko

- FAOren (Nazino Batuak) informazio orokorra [elikadura eta nekazaritza jasangarriari buruz](#)
- Batasun Europarraren jardunbidea: [Baserritik mahaira](#)
- Ekologistak Ekintzan erakundearen kanpaina: [Stop abeltzaintza industrialari](#)
- Información de Greenpeace: [Nekazaritza eta abeltzaintza](#)
- Artikulua Opcions aldizkarian: [La ganadería extensiva abre un camino ético para el consumo de carne](#)

## Ekintzarako proposamenak

- Aztertu zure elikadura-ohiturak elikadura jasangarriaren piramideari begiratuta (ikus grafikoa). Ze aldagata sartu zeinke dieta ekologikoago eta osasungarriagoari begira?
- Jaten dogunaz gainera, garrantzitsua da mahaira daroaguna nork eta zelan ekoizten dauan kontuan hartzea. Ze erispide darabilgu erosketa egitean? Erispide etiko eta ekologikoen arabera jokatzen dogu? Gure erosketa-saskia islatzen ete ditu gure balioak?
- Gonbidapen zehatza: kontsumo agroekologikoko kooperatibetan parte hartu.
  - Informazio orokorra Opcions aldizkariaren erreportaje honetan: [Cooperar para alimentarnos](#)
  - Supermerkatu kooperatibo batzuk:
    - Bilbon: [Labore Bilbo](#)
    - Gasteizen: [BioAlai](#)
    - Iruñan: [Landare](#)
    - Zaragozan: A Vecinal: [A Vecinal](#)
    - Sevillan: [La Ortiga](#)
  - Eta gehiago mapa honetan [Supermercados cooperativos](#)